

## MUNDUARI ADI

## ENERGIA



# Eredu berriak ereiten

## 1. ZER DA ENERGIA?

Zientziaren ikuspuntutik, lana egiteko materialak daukan ahalmena da energia: beroa sortzeko, argia sortzeko edo mugimendua eragiteko gaitasuna, hain zuzen. Eguneroko bizitzan, pertsonen bero eta hotz beharrak asetzeko, etxe tresnak martxan jartzeko, komunikatzeko eta argia eta mugikortasuna lortzeko erabiltzen da.

## 2. ZERGATIK GARESTITU DA?

Azken hilabeteetan, nabarmen garestitu da energiaren prezioa. Ukrainako gerraren eraginez izan dela zabaldu den arren, arrazoi gehiago daude. Olatz Azurza EHUKo Ekopol ikerketa taldeko kidearen arabera: «Ukrainako gerrak bizkortu edo areagotu egin ditu lehenagotik zetozen prozesu batzuk. Garestitu beharra zeukan, nahitaez». Hiru arrazoi aipatu ditu ikerlariak:

**MERKATUAREN LEGEA.** Zerbait asko dagoenean merkea da, eta gutxi dagoenean garestitu egiten da. Orain arte, gizartea ohituta zegoen energia merke asko izatera (ikatz, petrolio edo gasa, adibidez). Mota horretako energia geroz eta gutxiago dago, ordea, eta, beraz, geroz eta gehiago kostatzen da lurrazaletik erauztea; hortaz, geroz eta garestiagoa da.

**KLIMA ALDAKETA.** Energia fosilak erabiltzean berotegi efektuko gasak isurtzen dira, eta hori ez ger-



## MUNDUARI ADI ENERGIA

●●● (Aurreko orrialdetik dator)

tatzeko, edo gutxiago isurtzeko, teknologia berriztagarriak lantzen eta erabiltzen dira. Baina horien garapena garestia da. Teknologia horiek sustatzeko, Europar mugabat ezartzen diete urtean egin daitezkeen isurpenei. Muga horiek zenbat eta gehiago gáinditu, orduan eta diru gehiago ordaindu behar dute herrialdeek. Horren ondorioz ere garestitzen da energia.

### EUROPAREN MENDEKOTASUN ENERGETIKOA.

Europak ez du berezko energia iturririk, eta erabiltzen dituen energia iturri gehienak (fosilak) kanpotik datoz. Kanpotik ekartzeko gárraioa ere garestitzen ari da, ordea. Horrez gáin, energia Europari saltzen dioten herrialdeek geroz eta erosle gehiago dituzte, eta, hortaz, garestiago saltzen dituzte.


### 3. ZER ENERGIA MOTA DAUDE?

#### ENERGIA BERRIZTAGARRIAK:

agortzen ez diren energia motak dira, agortzen ez diren iturri naturaletatik eratorritakoak. Besteak beste, eguzkiaren, haizearen eta uraren indarra hartu, eta energia bihurtzen dute hainbat prozesuren bidez.

#### EZ-BERRIZTAGARRIAK:

agortzen diren energia iturriak dira. Behin amaituta, ezin dira berriro lortu. Alde batetik, erregeai fosilak daude (petrolio, erregeaiak, gasa), eta, bestetik, energia nuklearra. Diruz merkeagoa da energia ez-berriztagarrien bidez energia lortzea, baina ingurumenarako kaltegarriagoak dira.



### 4. EUSKAL HERRIAN ZER ENERGIA MOTA EKOIZTEN DA?

Euskal Herrian energia ekoizteko hainbat enpresa daude, baina, hala ere, gainerako herrialdeetatik ekartzen da gehienbat:

Euskal Hirigune Elkargoko Klima Planaren 2021eko datuen arabera, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan kontsumitutako energia guztiaren %12,2 ekoizten da bertan, eta ekoizpen hau %100 berriztagarria da.

#### BA AL DAKIZU?

Nafarroan kontsumitzen den elektrizitatearen %172 bertan ekoizten da, batik batik haize erroten bidez.

### 6. ZER DA TRANTSIZIO ENERGETIKOA?

Pertsonek energiarekin duten harreman eta ohiturak aldatzea esan nahi du trantsizio energetikoak, klima aldaketa gálditzea. Hainbat ildo landu behar dira aldi berean, Azurzaren esanetan: «Askotan, teknologia aldatzera sinplifikatzen dugu trantsizio energetikoa, baina horrekin bakarrik ez da nahikoa».



## %60 ENERGIA FOSILAK, PETROLIOA ETA GASA

Euskal Herrian gehien kontsumitzen den energia mota. Horien ondoren, elektrizitatea da gehien kontsumitzen dena, %21-23 artean

● ●  
Eguzki plakak Miñaoko parke teknologikoan, uraren gainean. EMICA SOLAR

Nafarroako 2019ko balantze energetikoaren arabera, kontsumitutako energia guztiaren %21 ekoizten da Nafarroan bertan, eta ekoizpenaren erdia eolikoa da.

Energiaren Euskal Erakundearen 2019ko datuek diotenez, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan kontsumitutako energiaren ia %10 bertan ekoizten da, eta ia guztia berriztagarria da.

## 5. ZER ONDORIO DITU INGURUMENEAN?

Energia ez-berriztagarriak erre egiten dira, eta, erretzean, CO2a eta ura ateratzen da. CO2ak berotegi efektua sortzen du eguratsean, eta, horren ondorioz, lurrazaleko batez besteko tenperatura igotzen ari da. Horrek klima mundu mailan aldatzea dakar, eta desertifikazio prozesuak eragiten ari da, hau da, leku batzuk behar baino gehiago lehorteza. Horrez gain, muturreko fenomenoak sorrarazten ditu, eta bioaniztasuna murrizten ari da. «Bizitza eza gututzen

dugun bezala mantendu ahal izateko, beharrezkoa da eguratsean dauden berotegi efektuko gasak gutxitzea», esan du Azurzak.

### Zer da berotegi efektua?

Atmosferaren beheko geruzetan dauden gasak lurrean eragiten duten berotze naturala da. Karbono dioxidoa eta beste hainbat gasak areagotu egiten dute prozesu hori, eta, horren ondorioz, ingurumenean hainbat aldaketa gertatzen ari dira.

## 8. EUSKAL HERRIKO ALTERNATIBAK:

Euskal Herrian, herritarrek antolatutako zenbait elkarte daude energia trantsiziorako.

**GOIENER.** Energiaren burujabetza berreskuratzea da Goiener kooperatibaren helburua. Horretarako, azken xedea da kooperatibak sorturiko energia kantitatea bazkideek kontsumitzen duten adina izatea da, energia berriztagarrien bitartez eta ahalik eta kontsumo arrazional eta eraginkorrena eginez. Nafarroan, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan ditu Goienerrek bazkideak.

**I-ENER.** Energia berriztagarriak ekoiztuta, Euskal Herrian energiaren berreskuratze herritarra lantzen nahi du I-enerrek. Gehienbat Lapurdin dituzte proiektuak: Jatsu, Baiona, Hendaia, Azkaine...

**ENARGIA.** Energia berriztagarriak erabiliz Lapurdin sortutako argindar hornitzaile bat da Enargia. Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako etxeetara energia «garbiagoa» bidaltzea helburu duen proiektua da.



## 7. ZER EGIN DAITEKE?

**KONTSUMOIA MURRIZTU:** gaur egun, energiaren kontsumoa oso handia da, eta planetako biztanle guztiek gutxienezko bat izateko, Euskal Herrian ere energia gutxiago kontsumitu behar da.

**ENERGIA MOTA ALDATU:** kontsumitzen den energia mota aldatu egin

behar da, agortu egingo delako eta ingurugiroari kalte handia egiten diolako.

**DESOREKAK GUTXITU:** energiaren gehiengoa jabe gutxiaren eskuetan da. Beraz, trantsizio energetikoan bidezkoagoak eta berdintasunean oinarritzen diren harreman moduak bul-tzatu behar dira.

